# KAUDIMEN TEKNIKO PROFESIONALA MANTENTZEKO ESKABIDE TELEMATIKOA BIDALTZEKO ERABILERA-GIDA

## Harremanetarako informazioa

**Telefono-zenbakiak eta ordutegia:**

**• Arazo teknikoak badituzu deitu 945 016 298 telefonora. Ordutegia: 07:45etatik – 20:00etara**

**• Kudeaketa-arazoak badira deitu telefonora: 945 019 596, 945 019 027, 945 018 935, 945 019 576, 945 018 925. Ortutegia: 08:00etatik– 14:30etara**

## Izapidea egin aurretik irakurri beharreko informazioa

**• Enpresa sailkatuek hiru urtean behin justifikatu behar dute beren kaudimen tekniko eta profesionalari eustea, emandako sailkapenari eusteko.**

**• Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko eskaera epe barruan aurkezten EZ bada, automatikoki etengo dira egindako sailkapenak, eta sailkapena berrikusteko espedientea irekiko da.**

**• Eskaera honek indarrean dagoen sailkapenari eusteko baino ez ditu ondorioak. Handitzeko edo aldatzeko, sailkapena berrikusteko beste espediente bat izapidetu behar da.**

**• Operadore ekonomikoak izen soziala edo egoitza soziala aldatu badu, enpresaren datuak aldatzeko eskaera egin beharko du, kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko justifikazio-izapidea egin aurretik.**

**•Hauek dira eskabidean sartu beharreko dokumentuak*:**

**1.Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko baldintzak biltzen dituen berariazko adierazpena.**
**2.Enpresaren jabetzako makinen eta ekipoen zerrenda, erosketa-urtea, erosketa-prezioa eta egungo balio zenbatetsia adierazita.**
**3.Enpresak azken hirurtekoan (zerbitzuak)/azken bosturtekoan (obrak) alokatutako makinen eta ekipoen zerrenda, honako hauek adierazita: urtea, ordaindutako guztizkoa, makineria alokatu zaion enpresa eta ordaindutako zenbateko partzialak.**
**4.Errentamendu finantzarioan dauden makinen eta ekipoen zerrenda, errentamendu-urtea, fabrikazio-urtea eta egungo balio zenbatetsia adierazita.**

***** Euskadiko Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dauden eta elkarreragingarritasun-mekanismoa baimentzen ez duten operadore ekonomikoek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiri positibo eguneratuak, organo eskudunek eginak, eta ziurtagiri positibo eguneratuak, administrazio-organo eskudunek eginak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen dutenak.

**• Eskaera honetan ez da egiaztagiririk aurkeztu behar (adibidez, azpitalde bakoitzean egindako lan nagusiak gauzatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, HIRUGARRENEKIKO ERAGIKETEN urteko aitorpena, sailkatu beharreko jardueren kontuetarako azken hilabeteko GSDN txostena...).**

**• * ikurrarekin etiketatutako eremuak nahitaezkoak dira, eta, beraz, bete egin behar dira.**

## JARRAITU BEHARREKO IZAPIDEA

1. Sakatu esteka honetan https://www.contratacion.euskadi.eus/teknikoa-eta-profesionala-kaudimena-izatea-enpresen-sailkapena/w32-kpeclasi/eu/

2. Sakatu eskabidea hasteko botoia.




3. Beharrezkoa da modu seguruan identifikatzea, identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko baten bidez.



4. Izapidearen hasierako pantaila bi aukerarekin kargatuko da:

   a. **Eskaera berrien kasuan**, operadore ekonomikoaren IFZ bete eta jarraitzeko botoia sakatu behar da.




   b. **Aldez aurretik gordetako eskaeren kasuan**, hurrengo estekan sakatu behar da eskaera kargatzeko eta uzten den lekutik jarraitzeko.



5. Inprimakiaren lehen pantaila kargatuko da, zure enpresaren identifikazio-datuak kargatuta dituela.




6. 2. urratsean, eskabidea osatzen duten ataletako datuak bete behar dituzu.




## Erakundea



## BALIABIDE PERTSONALEN ADIERAZPENA

**BALIABIDE PERTSONALEN ADIERAZPENA** Ezkutatu

Atal honetan, sailkatuta dauden azpitaldeetako lanak egiteko zuzenean garrantzitsuak diren enpresak dituen giza baliabideak zerrendatuko dira.

**Teknikarien zerrenda**

Enpresaren zerbitzura zerbitzu-kontratuak gauzatzeko soil-soilik eta dagokion araubidean Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden teknikari profesionalen zerrenda

+GEHITU KOPIATU ALDATU EZABATU

| Identifikazio-agiria | Zenbakia | Izena | 1. abizena | 2. abizena | Titulazio akademikoa | Lanbide-kategoria | Enpresan Esperientzia-urteak | Kotizazio-taldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |

**Kontratuak gauzatzeko laguntza teknikoa**

Adierazi zein teknikarik edo unitate teknikok egiten duten sailkapena eskatzen den obra edo zerbitzuak gauzatzeko balizko lankidetza.

+GEHITU KOPIATU ALDATU EZABATU

| Zenbakia | Izena | 1. abizena | 2. abizena | Kolaboratzailearen titulua edo espezializazioa | Kontratuaren data | Esku hartu duen kontratuaren izena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |

**Langile propioak, guztira**

Azken hirurtekoan izandako langileen batez besteko kopurua, GSDOren ziurtagiriak egiaztatuta * 193

Gaur egun altan dauden langileen kopurua * 172

## Giza baliabideen aitorpena

**BALIABIDE MATERIALEN ADIERAZPENA** Ezkutatu

Atal honetan, enpresak dituen eta sailkatuta dauden azpitaldeetako lanak egiteko garrantzitsuak diren makineria eta ekipoak zerrendatuko dira.

Horretarako, 3. urratsean (Dokumentuak erantsi) honako dokumentu hauek sartuko dira:

- Enpresaren jabetzako makinen eta ekipoen erosketa-urtea, erosketa-prezioa eta egungo balio zenbatetsia adierazita.

"Egungo balio zenbatetsia" eremuan, balio gisa adieraziko da makinari benetan dagokiona, haren kontserbazio-egoera eta, beraz, izan dezakeen erabilera kontuan hartuta..

- Enpresak azken hirurtekoan alokatutako makinen eta ekipoen zerrenda, honako hauek adierazita: urtea, guztira ordaindutakoa, makineria alokatu zaion enpresa eta ordaindutako zenbateko partzialak.

- Errentamendu finantzarioan dauden makinen eta ekipoen zerrenda, errentamendu-urtea, fabrikazio-urtea eta egungo balio zenbatetsia adierazita.

"Egungo balio zenbatetsia" eremuan, balio gisa adieraziko da makinari benetan dagokiona, haren kontserbazio-egoera eta, beraz, izan dezakeen erabilera kontuan hartuta.

## Esperientziaren adierazpena

Obra-motako operadore ekonomiko baten kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko justifikazioa eskatuz gero, atal hau agertuko da:




Azpitalde bakoitzeko kontratuak gehitzeko, EDITATU botoia sakatu behar da.




Ondoren, sakatu GEHITU botoia.




Leiho bat kargatuko da hautatutako azpitaldeko obra-kontratuaren datuak betetzeko.




Ez ahaztu ONARTU botoia sakatzea azpitalde bateko lan guztiak bete ondoren.



Zerbitzu-motako operadore ekonomiko baten kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko justifikazioa eskatuz gero, atal hau agertuko da:




Zerbitzuen azpitaldeetan kontratuak gehitzeko mekanika lehen azaldutakoaren antzekoa da.

## Finantza-baliabideen aitorpena



**Elkarreragingarritasunerako baimenak**.

Enpresa inskribatuta ez badago eta KEO ziurtagiria indarrean ez badu, elkarreragingarritasunerako baimenen atala erakutsiko zaio, inskripzioetan eta berrikuspenetan egiten den bezala.



BAIMENAK Ezkutatu

Elkarreragingarritasunerako baimenak

☐ AURKA egiten diot Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, elkarreragingarritasun administratiboko mekanismoen bitartez, honako datu hauek kontsultatzeari:

- Zerga-betebeharretan egunean nago.[1]
- Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean nago

*[1] Kontsulta eskuragarri dago foru-aldundietan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa) eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzian*

*OHARRA. Aurreko datuak kontsultatzeko baimenik EZ emateak dagozkion ziurtagiriak aurkeztea eskatzen du.*

☑ Nire baimena ematen dut Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzatik, elkarreragingarritasun administratiboko mekanismoen bitartez, honako datu hauek kontsultatzeari:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeak .*[2]*

*[2] Kontsulta eskuragarri dago Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Erkidegoko foru-aldundietan*

*OHARRA. Aurreko datuak kontsultatzeko baimenik EZ emateak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga dokumentua aurkeztea eskatzen du.*

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeari uko eginez gero, 3. urratsean dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeak egiaztatzeko baimenik ematen ez bada, 3. urratsean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

**ESKABIDEAN SARTU BEHAR DIREN AGIRIEN EREDUAK**

Atal honetatik, sinatu eta erantsi beharreko berariazko adierazpena deskargatu ahal izango da, eskabidearen 3. urratsean.



ESKABIDEA IZAN BEHAR DITUEN DOKUMENTAZIO EREDUAK Ezkutatu

Eskabidea izan behar dituen dokumentazio ereduak

- - Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko baldintzak biltzen dituen **berariazko adierazpena**. Beharrezkoa da gutxienez ahaldun solidario batek sinatzea, edo, ahalordetze mankomunatuen kasuan, ahaldun mankomunatu guztiek
Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko baldintzak biltzen dituen berariazko adierazpena (Pertsona Juridikoa) (PDF, 167 KB)
Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko baldintzak biltzen dituen berariazko adierazpena (Ahaldun Mankomunatuak dituen Pertsona Juridikoa) (PDF, 119 KB)
Kaudimen tekniko eta profesionalari eusteko baldintzak biltzen dituen berariazko adierazpena (Pertsona Fisikoa) (PDF)

7. Atal guztiak bete ondoren, HURRENGOA botoia sakatu behar duzu 3. urratsera joateko (dokumentuak erantsi).




8. Erantsi dokumentuak 3. Urratsean.




Dokumentu bat edo batzuk gehitzeko aukera dago. Horretarako, sakatu "Gehitu beste bat..." botoia, behar beste aldiz.




9. Berrikusi 4. urratsean datu guztiak zuzenak direla eta, eskaera bidaltzeko, sakatu "SINATU eta BIDALI" botoia:




10. Sinatu eskabidea eta deskargatu egiaztagiria eta eskabidea agertzen den azken pantailan.




Gogoratzen dizugu izapideari dagokionez zure esperientzia balora dezakezula BALORATU ZURE ESPERIENTZIA botoia sakatuz. Zure iruzkinek hobetzen lagunduko digute.

